

Deialdirako Oinarriak egiteko eta idazteko, honako eskema hau proposatu da:

**1. SARRERA**

**2. DEIALDIAREN HELBURUA**

**3. ENTITATE ESKATZAILEAK**

Aurkez daitezkeen entitate motak  
Entitateei eskatzen zaizkien betekizunak

**4. PROIEKTUAK**

Proiektuen betekizunak  
Balorazio irizpideak

**5. DIRULAGUNTZEN EZAUGARRIAK**

Diru-laguntzen gutxienerako eta gehienezko zenbatekoak  
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

**6. ESKARIA EGITEKO PROZEDURA**

**7. PROIEKTUAK AZTERTZEKO ETA AUKERATZEKO PROZEDURA ETA DEIALDIAREN ERABAKIA**

**8. ONARPENA EMAN ONDORENGO PROTOKOLOA**

Harpidetza egiteko konpromiso edo hitzarmenak  
Diru-laguntza ordaindu  
Jarraipenaren ezaugarriak  
Informaziorako eta sentsibilizaziorako konpromisoak

## 1. SARRERA

Deialdiaren zergatia, erakundean izan dituen aurrekariak eta deialdiaren beraren helburua azaltzen ditu.

## 2. DEIALDIAREN HELBURUA

### Deialdiaren eremua zehaztu:

- Zehazki, elkarlanerako proiektuak bakarrik onartzen diren (garapenerako bidean dauden herrialdeetan garatuko direnak) edo sentsibilizazio proiektuak ere finantzatuko diren erabaki behar da (Deialdiaren lurralde esparruan garatuko direnak).
- Azkeneko kasuan, bi proiektuen arteko bereizketa egitea gomendatzen da, kategoria edo kudeaketa bakoitzari ematen diogun zenbatekoa zehaztuz.

Aldi berean, deialdiaren **lurralde esparrua** zehaztu, besteak beste:

- Garapenerako bidean dauden herrialde guztiak, Europako herrialdeak barne dauden edo ez zehaztuz.
- Kontinente, makro-eskualde (adib.: Erdialdeko Amerika, Ande ingurua...), herrialde eta eskualde batzuk bakarrik.

**Lehentasun irizpideak edo lurralde lehentasunak ezarri diren zehaztu**, adibidez:

- Herrialde jakin batzuk.
- Egina dagoen sailkapenen bat (Giza Garapeneraren Aurkibidea, biztanleko Barne-Produktu Gordinaren arabera (BPG), Munduko Bankuko sailkapena).

Aldi berean, proiektuen **sektore eremua** ezarri, hau da:

- Edozein motako proiektuak.
- Zenbait sektore edo azpisektore (adibidez: ura, hezkuntza, osasunerako lehen mailako asistentzia, nekazaritzako ekoizpena).
- Sektoreei dagokienez ezartzen diren lehentasunak.

## 3. ENTITATE ESKATZAILEAK

**Aurkez daitezkeen Entitate Motak zeintzuk diren** zehazten du:

- Irabaz asmorik gabeko entitateak.
- GGKEak (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak).
- Hezkuntza ikastegiak.
- Edozein entitate, bere helburuen artean elkarlana edo garapenerako laguntza baditu.

**Entitateek bete beharrekoak:**

- Administrazio betebeharrak
- Horretarako dagokien erregistroan izena eman (Autonomia Erkidegokoan, probintzian edo udalean)
- Estatutuak
- Legezko ordezkariaren ziurtagiria

- IFK
- Banku Kontua
- Aurreko ekitaldiaren/en balantzeak
- Jardueren txostenak

**Esperientzia edukitzea**, denbora epeak zehaztuz (adib.: gutxienez urtebete)

- Herrialde jakin batean elkarlanerako ekintzetan esperientzia eduki
- Sortu berriak diren entitateek jasotzen duten trataera zehaztu

**Deialdiaren lurralde eremuan jarduera erreala egiteko eskakizuna**

Alderdi hau garrantzitsua iruditzen zaigu, hori baita, udalerriko sektore/talde batek proiektuarekiko eta honen jarraipenerako duen konpromisoa ziurtatzeko baldintzetako bat.

GKE eskatzaileari, aurretik sentsibilizaziorako eta laguntza humanitariorako jarduerak (zehaztu behar dira) eginda izatea eskatzea gomendatzen dugu.

#### **4. PROIEKTUEKIN ERLAZIONATURIKO BALDINTZAK**

Kapitulu hau oinarrizkoa da, bertan zehazten baitira: proiektuak onartuak izateko gutxienerako baldintzak, eta proiektuen balorazioa egiteko orduan, zein irizpide jarraituko den.

##### **Proiektuen betebeharrak**

Geografi eremuak errepika daitezke.

Aldi berean, gutxienerako edota gehieneko zenbatekoak zehaztu daitezke.

Betebehar bezala zehaztu daiteke: helburuei buruzko, egin beharreko jardueri buruzko, aurreikusitako baliabideei buruzko eta jarduerak martxan jartzeko ardura duten erakundeei buruzko informazio nahikoa eman.

Baldintza bezala, proiektua gauzatzeko gehienez hiru urte izango dituztela azpimarratzea gomendagarria da.

##### **Proiektuen baloraziorako irizpideak**

Deialdietan honelako balorazio irizpide hartzea Udal bakoitzaren ardura da; hala ere, kontutan hartu beharke irizpideen zerrenda zehatz bat proposatu eta adierazten da:

- **Proiektuaren kalitate teknikoarekin zerikusia duten irizpideak:**
- Garatu beharreko proiektuari buruz, testuinguruari buruz... eta abarri buruzko nahikoa informazio.
- Ekintzaren zergatia, moldatutako helburuak eta proposatutako jardueren arteko koherentzia.

- Burutu beharreko ekintzaren egingarri-tasun teknikoa (atal honi buruzko informazioa ezinbestekoa ikusten da produkzio eta azpiegitura proiektutarako).
- Proiektuaren sostengarritasuna epe luzeagora, behin lagundu den ekintza burutu eta gero.

- **Parte-hartzaileen gaitasun eta harremanen kalitatearekin zerikusia duten irizpideak:**

- Bertako erakundearen esperientzia eta gaitasuna (erakunde egilea), baita onuradunekiko bere lotura ere.
- Onuradunen parte-hartzea bai proiektua proposatzerakoan, bai gauzatzerakoan edota kudeatzerakoan ere.
- Bertako instituzio (demokratiko) baten nolabaiteko parte-hartze edo bermea.
- Eskaera egiten duen GKEren esperientzia eta jarraipena egiteko duen gaitasuna.

- **Aurrekontuarekin zerikusia duten irizpideak:**

- Zehaztutako baldintza eta mugekiko egokitasuna.
- Planteatutako jardueretikiko egokitasuna.
- Proiektu osoaren egingarri-tasun ekonomikoa (eta ez eskaerarena soilik).
- Eraitza eta onuradunen kopuruarekiko egokitasuna.

- **Proiektuaren helburu sozialekin zerikusia duten irizpideak, esaterako:**

- Bereziki beharrean edota bazterturik diren sektoreei laguntza (indiarrek... e.a.).
- Emakumearen eskubide eta aukeren sustapena.
- Giza eskubideen sustapena.
- Beharrean edo bazterturik dauden sektoreen formazioa.
- Antolaketa eta oinarrien edo komunitateen parte-hartzearen sustapena.

- **Proiektuak duen generoarekiko sistematikoki baloratzea proposatzen da, izan ere:**

Emakumearen bereizketa talde eta giza komunitateen multzoarengan eragina duena egoera da.

Probaturik dago beren arazo espezifikoak kontutan hartuz emakumeek zuzenean parte-hartzen duten proiektuen garapenean inpaktu handiagoa eragiten dutela.

- **Deialdiaren helburu eta lehentasunekiko egokierarekin zerikusia duten irizpideak** (ea geografia, sektore edo proiektu motan oinarritutako lehentasunak zehazten diren ala ez).
- **Proiektuarekiko identifikazio eta inplikazioarekin zerikusia duten irizpideak:**
  - Udalerriko taldea eta proiektua gauzatzen duen taldearen artean diren edo bultzatzen diren elkartzaren harremanak.
  - Ekintza zonalde hortan lehendik bultzatutako proiektu edo ihardun baten jarraipena izan dadin.

- **Euskal Herriko Lankidetzaren Deszentralizatuarekiko kohesio edo batasunarekin zerikusia duten irizpideak:**
  - Euskal Herriko beste udal edo instituzioen laguntza.

## 5. DIRULAGUNTZEN EZAUGARRIAK

- **Diru-laguntzaen zenbatekoen gutxienekoak eta gehienezkoak**, zehazteko asmorik badago.
- **Beharrezkoa den gutxieneko kofinantzaketa** (emandako dirulaguntzatik at): gutxieneko %10 ematea gomendatu da. Edonola ere, bertako ekarpena (lana, azpiegitura, eta abar) balioztatua izatea onartu behar da: askotan, gutxietsia izaten da.
- **Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:**
  - Gastu motaren bat diru-laguntzatik at geratzen bada zehaztu, edo zenbait partidentzat dagoen diru-laguntzaren zatia murrizten bada ere zehaztu.
  - Bereziki, "erbesteratua dagoen jendeari" (lankideei), zuzendutako partida murrizten den zehaztu, edo onartzen diren soldata mailak zehaztu.
  - Zenbateko txikiak direnez, identifikazioari dagozkion gastuetarako edo bidegarritasun azterlanen gastuetarako edo proiektuaren aurkezpenari dagozkion gastuetarako, diru-laguntzarik ez ematea gomendatu da.
  - Aldi berean, "Zuzeneko kostuetara" zuzendutako gehienezko zenbatekoa zehaztu (kudeaketatik, administrazioetik eta jarraipenetik izan direnak): %5 gomendatu da.

## 6. ESKARIA EGITEKO PROZEDURA

Proiektuak aurkezteko epea: hilabete eta bi hilabeteren artean (Epea Deialdiaren erregulartasunaren arabera jarriko da. Urteko aldizkakotasun finkoa gomendatu da). Nazioarteko eta Iberoamerikarako Elkarlanerako Estatuko Idazkaritzak (SECIPI) erabiltzen duen formulario bera erabiltzea gomendatzen da.

## 7. PROIEKTUAK AZTERTZEKO ETA AUKERATZEKO PROZEDURA ETA DEIALDIAREN ERABAKIA

Proiektuak aztertu: zeinek egin behar duen zehaztu, parte har dezaketen erakunde aholkulariak edo kontsulta egiteko erakundeak zeintzuk diren zehaztu.

GKEk eskatzailearekin elkarrizketa bat izateko aukera kontutan hartu.

Erabakia hartuko duen erakundea zein izango den zehaztu (Gobernu Batzordea edo Bilkura).

Erabakia hartzeko epea: gehienez 2 hilabete (azterlanerako eta erabakia hartzeko prozesuak aurrera jarrai dezan, udako oporregatik geldiketarik egon gabe, Deialdia lehenengo hiruhilekorako irekitzea gomendatu da, eta beharrezkoa izanez gero, luzatutako aurrekontuaren kontura).

## 8. ONARPENA EMAN ONDORENGO PROTOKOLOA

- **Sinatu beharreko konpromiso edo hitzarmenak**
- **Diru-laguntzaren ordainketa:**

Hau oso alderdi garrantzitsua da. Askotan, GKE txikiek edo udalerriko taldeek ezin izaten dituzte fondoak aurreratu: ondorioz, proiektu bat gelditzea gerta daiteke, onuradunen gogoak hoztuz eta taldeen arduradunengan sinesmena galduz. Horrez gain, komunikazioaren garaian gaudela kontutan eduki behar da (bereziki egiaztagiri mordo bidali behar denean). Horregatik,

- Diru-laguntza "txiki" edo "ertainetarako", ordainketa bakarra egitea gomendatzen da (%100).
- Diru-laguntza garrantzitsuagoen kasuan, ordainketa zatitu daiteke, ordainketa modu malguagoen bitartez %50, %40 bat justifikatu ondoren ordaindu).

- **Jarraipenaren ezaugarriak:**

Txostenek izan behar duten aldizkakotasuna zehaztu, (gomendioa: sei hilero) eta aurretik ezarrita dagoen txosten eredia aurreikusi da.

- **Proiektuekin harremana duten informaziorako/sentsibilizaziorako jarduerak:**

Diru-laguntza jasotzearen ondorioz, eta erakundeak hala eskatuko balu, GKEak biztanleriari proiektuaren berri eman beharko dio.